


MarraziOak

17



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gaiterria
eta Kirol Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA



zBbY
Galtzagorri
elkartea

2025eko ekainaren 9tik 13ra
Undermount-en (Igeldo, Donostia)
Galtzagorri elkarte
administrazioa@ibbygaltzagorri.eus
943 471 487

MARRAZIOAK XVII

Herensugeak eta dragoiak

Beldurretik jolasera

MAITE GURRUTXAGA eta JUAN KRUZ IGERABIDE

ZER:

XVII. MARRAZIOAK tailerra Maite Gurrutxaga ilustratzaileak eta Juan Kruz Igerabide idazleak gidatuko dute “**Herensugeak eta dragoiak. Beldurretik jolasera**” goiburupean. Tailer honetan, euskal herensugeak eta munduko dragoiak aztertuko dituzte, eta eskaintzen dituzten aukera grafikoak landu. Alde batetik, euskal tradizioko herensuge motak dauzkagu, eta dagozkien ipuinak, hala Iparraldean nola Hegoaldean. Bestetik, munduan zehar dragoi mota ugari irudikatu izan dira, hala mendebaleko tradizio klasikoan nola ekialdeko kulturetan, Amerikako tradizioak ahaztu gabe. Forma eta esanahi aldetik oso ugariak dira, eta sinbolo bertsua izanik ere ñabardurak asko aldatzen dira alde batetik bestera. Sinbolikoki, azken batean, herensugea giza bizkarrezurraren adierazpena da, lurretik abiatu eta zerurantz doan su-energiaren sinboloa. Jakina, ugaritasun horrek adierazpen grafikorako ere joko handia ematen du, eta horretarako zenbait teknika landuko dituzte.

NOLA:

Aurtengo edizioan, herensugeen ipuinak ilustratzeko bideak landuko dituzte parte-hartzaileek. Bideok tradiziora hurbil daitezkeela edota apurtzaileak izan daitezkeela erakutsiko diete gidariak. Elkarrekin arakatuko dute bidea, bide zabala eta aberatsa, herensugeen ipuinek izan dituzten tokian tokiko aldaerak ezagutuz.

Lehenengo egunean Herensugearen ezaugarriak ezagutu eta haren sinbologia aztertuko da eta tailerrean egingo denaren azalpena eskainiko da. Hortik aurrera, beste aldaera batzuk landuko dira, klasikoak barne, bai edukiaren aldetik, bai ilustrazioaren aldetik, parte-hartzaileek materialaren ikuspegi ahalik eta zehatzena izan dezaten. Hala,

tailerraren ordu praktikoak lan horri eskainiko dizkiote. Aztertuko dituzten ipuinak sekuentziatzeko modu narratiboak eta estetikoak landuko dituzte. Proposamenak, ideiak, ezagunak eta ez hain ezagunak diren erantzunak eta materialen zein ilustrazioen aukera oparoak landuko dituzte, besteak beste. Azterketa horretatik ateratako ondorioak praktikan jartzen saiatuko dira. Praktika orduetan parte-hartzaileek eskura izango dituzte gidariak; bidean lagunduko diete, hausnartzeko tarteak bilatuko dituzte eta aukera berriak aztertuko dituzte.

IRAKASLEAK:

Maite Gurrutxaga

Juan Kruz Igerabide

NOIZ ETA NON:

2025eko ekainaren 9tik 13ra, Undermount-en (Aita Orkolaga pasealekua 46, Igeldo, 20008, Igeldo). Donostiako autobusen 16-Igeldo lineak parean du geltokia. Linea horretako autobusak Donostiako Boulevard zumarditik abiatzen dira.

Ordutegi jarraitua izango du tailerrak: **10:00etatik 18:00etara**, bazkaltzeko ordubeteko atsedenaldiarekin. Parte-hartzaileek beren bazkaria eraman dezakete, bertan bazkaltzeko aukera dago eta.

Asistentzia derrigorrezkoa da: parte-hartzaileek tailerraren saio guztietara etortzeko gai izan eta horretarako konpromisoa hartu behar dute.

NORENTZAT:

Gehienez 10 irudigilek hartuko dute parte.

Parte hartzeko baldintza orokorrak:

- Euskaraz ulertzeko gai izatea ezinbestekoa da.
- Galtzagorri elkarteko bazkide izatea baloratuko da.
- Euskal Irudigileak (APIE-EIEP) Elkarteko bazkide izatea ere kontuan izango da.
- Parte-hartzaileek ez dute zertan argitaratutako lanik izan behar.

ESKAINITZA:

Topaketa hauetan **formazioa doan** eskainiko zaie irakasleek aukeratzen dituzten 10 lagunei. Guztira, 35 orduko tailer praktikoa egiteko beka bana eskuratuko dute.

IZEN-EMATEA:

Ilustratzaile bakoitzak bere dosierra edo bere 10 irudiz osatutako lagin bat aurkeztu beharko du, bere estiloa, estetika eta ildoak irudikatzen dituztenak.

Horrez gain, honako dokumentazioa igorri beharko du:

- Curriculumuma
- NANren kopia bat
- Posta elektronikoaren helbidea
- Telefono zenbakia

Dokumentazioa wetransfer bidez bidali beharko du

administrazioa@ibbygaltzagorri.eus –era.

EPEAK:

Eskaerak aurkezteko azken eguna: **2025eko maiatzaren 13a** izango da.

Aukeratutakoei 2025eko maiatzaren 19ko astean erantzungo zaie.

ANTOLATZAILEA:

Galtzagorri elkarte

BABESLEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

INFORMAZIOA ETA ARGIBIDEAK:

943 471 487

www.ibbygaltzagorri.eus / administrazioa@ibbygaltzagorri.eus